

**Loramendi**

**OLERKIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Olerkiak*, Loramendi. Loramendi Kultur  
Elkartea, 1995

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00284.htm>

# ARDI GAXOA!...

*(Erravi sicut ovis, quae periit)*

Ibarrez ibar, mendirik mendi  
Artzai Onaren ondoren  
zeñen gozoki, zeñen zoruntsu,  
zeñen gentzaro nenbillen!  
Abesti legun, atseginkorrak  
Artzaiak zizkun abesten,  
ibargi naro, loretsuetan  
genbiltzanean bazkatzen.

Egun batean, lilluratua  
utzirik ai! artaldea,  
aldendu nintzan arturik ala  
bear ez nuen bidea;  
pozka ondoren urrundu nintzan  
irudipenez betea,  
ludirik barna zoro ninjoan  
iritxi naian ohea.

Doakabea!... ez nekin bela  
iges urak zekarrena;  
itsumusturik ez nun nabaitu  
sartu zidaten eztena...  
Urrin zerion bide zabala  
lenen ibilli nuena;  
arantza zorrotz, otez josia  
zorakerien azkena...

Lizunkerizko lore tartean  
txoraturik nebillela,  
ixil-ixilik irten zitzaidan,  
iñar-tximista bezela,  
otso beltz,aundi,amorratua,  
erakutsirik orrela  
begi zartatsu, ao zorrotza,  
odol-bitsa zeriola.

Ordu samiña!... Gogoratu nintzan...  
Iges egin nai atzera!...  
Zaunkaka berriz nere gain beti  
otso goseti, ankerra...  
Larri nengoen... indarrak aitu...  
ezin nuen jo aurrera...  
Ordu berean oiuka ikusi  
larrero Artzai ber-bera.

Zorigaiztoko aztar ondoren,  
ardi guziak baturik,  
estu zetorren menditik bera  
txistu ta oiu egiñik.  
Ibar-mendiak aztertu zitun  
malko samiñez bustirik;  
etsai beltzaren mendean larri  
idoro nindun azkenik.

Il-zori artan ikustean ni  
egin zun txistu zolia...  
nere gañetik uxatu zedin  
otso zital, bigurria.  
Arin ta laster urbil zitzaidan...  
laztandu nindun guztia...  
Ezti tantoaz osatu zidan  
biotzan nuen zauria.

Indartu nindun jardun gozoaz...  
gero sorbaldan jarririk,  
eraman nindun ardi tartera  
laztan beroak emanik...

Enaiz geroztik iñoiz alden  
Artzai Onaren esitik.  
Ardi galduak!, ikasi Nor dan  
Jesus Artzaia nigandik.

*Zeruko Argia* 140,  
1930eko abuztua

# GUZTIZ EDERRA

Gau erdia zan... Ezeren txintik  
etzan entzuten; noizka bakarrik  
pizti gautarren ulua...

Ito zituzten baztar guziak  
illunpe lodi, nazkagarriak.

Bildur damaidan ordua!  
Kezka beltzaren osin aundia  
zirudin ziñez erri-aldia  
nagiz korapillatua...

Argi motelak dir-dir zegiten...,  
sapai neurgian aldiz zematzen  
ontzaren begi galdua...

Ta illunpe orren egadapean  
gogo gaxo bat illar gañean  
zegoan loak artua.

Aldi-aldizka, geldi zetorren  
mendi-ostean negar zerien  
ezkillatxoeren soñua...

Goit-ots garbia, goit-ots leguna,  
ezkillatxoeren ez-titasuna!...

Esnatu zuten gogua!...

Ordu berean jetxi zitzaion  
anitz biziro argi zerion

Jaunaren goiaingerua...  
Mugitu zuen esku ariñez...  
Ezarri zion ezpain oztiñez  
laztan sendo ta estua...  
Ta aurkeztu zion lili txuria,  
bere onaren antz-irudia,  
aukeraz Jaunak sortua.

*Gogoak: (Arriturik bezela)*

Nor zaitut, gaztetxoa, nor, zoragarria?...  
Zeren billa zatozkit? ... Zein da zure naia,  
oñetik bururaño zillarrez jantzia?...  
*Nora zoaz, gaztea, nora ain zolia?...*

*Goiiaingeruak: (Zaleki)*

Atoz, atoz lenbailen; atozkit gaxoa!...  
Donokitik dakartzut gaur berri gozoa!...  
Atoz!... Alaitu zaitez... Igitu, gogo!...  
*Ara zuri begira goian Izartxoa!...*

*Gogoak:*

Zer diozu, gaztea, zer, nere kutuna?...  
*Begira zeñen beltza or illuntasunal...*



*Goiangeruak:*

Pizkortu zaitez laster!... Astindu losuna!...  
Nekin daramat beti nik argitasuna!...

..... .  
Ego lirañez estali zuen  
azkenik gogoa,  
ta gaindu zuten ega luzean  
mendiren lepoa.

*Gogoak: (Tontorrean, orpo puntetan, Izarrari begira)*

Zeñen aratza, zeñen txuria  
Izartxoaren dirdira!...  
Zeñen maiteki begiratzen dit  
zeru ortatik ludira!...

*Goiangeruak:*

Laztandu nairik zugana datoz  
Izartxoaren izpiak.  
Dirdir dagizu... Lilluratuak  
damaie zure niniak.

*Gogoak:*

Izar ederra, zoragarria,  
biotz erien zoruna!...

*Goiangeruak:*

Geitu zazula zure goraltza  
ziñez zaio-ta leguna!...

*Gogoak:*

«Gutziz Ederra zera, Maria.

*(Biak aldizka abesten dute «Tota pulchra es»)*

*Goiangeruak:*

Gutziz Ederra, sortzez garbia.

*Gogoak:*

Zu zera Jerusalengo ospea.

*Goiangeruak:*

Zu, Israeleko pozkillea.

*Gogoak:*

Zu, gure errien ornen osoa.

*Goiangeruak:*

Zu, obendien bitartekoa.

*Gogoak:*

O Maria!

*Goiangeruak:*

Birjin oarkorra!

*Gogoak:*

O Maria!

*Goiangeruak:*

Ama Errukorra!»

*Zeruko Argia* 143,  
1930eko azaroa, 181. or

# BELENGO ARGÍ-LOREA

*(Et ecce stella, quam viderant in oriente, antecedebat eos...)*

## I

Belen-aldeko mendi gallurak,  
ibai-ertzeko zugaitz-ezurak  
estali ziran elurrez...

Aize durunkor, zatilariak  
orru zegiten, jorik erriak  
izoztutako arnasez.

Ekaitzen mende arro dijoa  
txabolatxoan amas beroa,  
ke mordo jostalaria...

Ardi motelak gosez orruka,  
txabol aurrean jolas oiuka,  
kapusai luzez, artzaia.

Mendi-kolkoan argi gorriak  
txinpartaz ziran igotzen,  
ta artzai-mutillen irrintz luzea  
aize zakarrak zekarten.  
Uso-lumak lez elur-ostoa  
ixil jarien odei-mordoak...



Artzai-mutillak, artzai-mutillak,  
gora jasorik zuen makillak,  
tontorrik tontor,  
al bezin pizkor,  
irrintz alaiez, Belen aldera  
«Argi-Lorea» begiztatzera!

Euzki-aldeak argi jario!...  
Izpi legunak galtzen zaizkio!...  
Orren txuria  
euzki-aldia! ...  
Oraindik iñoiz ez ikusia!...  
Txingi pollitak laztan damaio!

Agur zeruko goibeltasuna!...  
Agur bizitzen uztar astuna!...  
Urrun bijoa  
    ekaitz-orroa,  
indar nastuen zurrunbilloa!!...  
Ara biotzen askatasuna!...

Geldi zetorren!... Dirdir zerion!...  
Belen otzari laztan zemaion!...  
Ale bikaiña!...  
    Lore urdiña!...  
Txingi aratza!... Osto liraiña!...  
Nolaz nik esan zer dagokion?...

Geldi zetorren!... Artzai mutillak,  
gora jasorik zuen makillak,  
tontorrik-tontor,  
    al bezin pizkor,  
irrintz alaiez, Belen aldera,  
«Argi-Lorea» begiztatzera!!...

### III

Zerbait nai zuen!... Geldiro xamar  
zaldun-talde bat ondoren dakar!...

Zerbait nai zuen!...

Zerbait Belenen!...

Goitik begira zorrotz zebillen  
jauregi, etxe, txabola ta abar!...

Zerbait nai zuen!... Uri burutik  
kiñuka zegon aspertu ezik!...

Zerbait nai zuen!... Zertara dakar  
zaldun-taldea geldiro xamar? ...

Ezin det asma!...

Berriz...darama!...

Zerbait nai zuen!... Mendi-bularra?...

Nai ote zuen estalpe zarra?...

## IV

Ixildu bitez itzak!... Mututu mingaiña!...  
Iñolaz ezin jardun!... Ez naiz, ai!, ni diña!...  
Lau orma baldar... Elur-izara!...  
(Ene au egi zorrotza!...)

Ezin dezaket!... Ezin dezaket!...  
Mitiez lotzen zait biotza!...  
Estalpe bazterrean... sendi bat zekusten!  
Idi eta astoak arnasez berotzen!...

Aur txiki, eder, jaioberria,  
(auzpeztu nadin lenbailen!...)  
lasto tartean erdi gordea,  
gorriak zegon ikusten!  
(Ar zazu, Jesus Ona,  
nere eskeintz xamurra;  
ezin dizut ukatu  
nik emen agurra).



Ume gaxoa!... Lotan zematzen  
bere begitxo urdiñak.  
Abo xabalik!... Zango txikiak  
arrosa baten pinpiñak.

Auzpez daude zaldunak,  
auzpez Erregiak;  
eskeintzen dizkiote  
urrezko opariak.  
Malko sendo, garratzak  
ixil darorzkie;  
beren biotz-barrenak  
samurtu zaizkie.

Otoi luzea!... Otoi beroa!...  
Emendik ezin aldendu!  
Maitasunaren irudi bizi  
ziñez or dira biurtu!  
Izar-Lorea goian begiral...  
Orren garbia bere dirdiral...  
Irri-par dagi  
    lilluragarri!...  
Laztan damaio Aur txikiari!  
Erri guziak emen balira!...

Belen-aldea, Belen-aldea,  
Jesus Aurraren txoko maitea!!  
Gorenen zakust!  
Abes dagizut!...  
Biotz barrendik zuri damaitzut  
esker onezko «Argi-Lorea»!!...

*Zeruko Argia* 145,  
1931ko urtarrila, 3. or.

# **RAPTRIX CORDIUM**

## **(URRUNGAITZA)**

Auxe, bai, lana,  
Andra Maria,  
auxe lan eziñezkoa!  
Biotzik gabe  
nai bizitzea!...  
Biotz gabe!... Gaxoa!...

Goiz nabarrean,  
lotan nengola,  
nigana zera alboratu;  
ta ixil-ixilik,  
laztan beroaz,  
barrendik ostu didazu.

Aldendu ziñan.  
orpo puntetan!...  
Etzaitut geroz ikusi!...  
Bakar soraio  
lerro soil ontan  
negarra darit lertzori.

Doakabea!...

Malko samiñez

emen naukazu, ia illik!...

Zure begiak!!...

Zure biotza!...

Ez det nik, ez, beste nairik!...

Zure zai nago

egun osoan...

Zuri aieska larriro!...

Itzali zaizkit

begi-txingarrak...

Barrenak odol jario!...

Ez ba, oi Ama!

ez izan netzat

orren samin ta gogorra!...

Bestela, ene!

agertuko zait

zaunkaka etsai dollorra.

Kupitu zaitez!...

Atoz lenbailen,

nere argi ta zoruna!...

Atoz, amarik

maiten-maitena!...

Atoz, atozkit kutuna!...

Biotzik gabe

ezin nezake...

Biotzik gabe ezin bizi!...

Biotzik gabe,

ene maitea,

biotz gabe ilko naiz ni!!!...

*Zeruko Argia* 146,  
1931ko otsaila, 25. or.

# ENADA BELTZA

## I

Ura, bai, zala lagun zintzoa  
leio-ertzeko enadatxoa!...

Udaberriro bazetorkidan!  
Mingain jatorraz abesten zidan  
eresi xamur, polita.  
Txo-rro-txo-txio!... egun osoan  
egoten oi zan nere leioan,  
leioan tente jarrita.

Goiztarra izanik esnatzen niñun  
pipir alaiez oraindik illun!...  
Ta irabioka  
jolas-txioka  
nere gain beti egunik-egun.

Arazo garaiz aldiz zetorren...  
txio zorrotz bat eman ondoren,  
nigan xabalik  
begik jarririk,  
kiñu politak zizkan egiten,  
mingain bikoitza erakutsirik.

Arto bizar ta lokatz biguna  
elkar josiaz, kabi txukuna  
ipiñi zidan zintzilik...  
Jolas-alditan gordetzen oi zan  
arret aundiaz kabi-ondarran,  
ni zaintzearren barrendik.

Ikusten niñun billa ezinik!...  
Buru koxkorra erdi-jasorik,  
kiñu naikoa!...  
Txio gaiztoa!  
Ta ixilik berriz sartzen zan geldi,  
nere zai beti... beti lapurki!...

Elkarren leian ezin obeto  
biok emen bizi giñan.  
Lagun oberik arkitu ezin;  
orren maitagarri baitzan!...  
Leio-ertzean tente jarri-ta,  
zeinbat atsegin zemaidan!...  
Ura, bai, zala lagun zintzoa  
leio-ertzeko enadatxoa!



Eldu zitzaigun negute otza,  
zorigaitzaren odei mingotza...  
Ezur damate zugaitzak...  
Urez gañezka datoz ibaiak,  
ta apairidu ditu eusko-mendiak  
elur txurien orratzak.



Or daramatzi aize zakarrak  
zugaitz adarren osto bakarrak.  
Ekaitzen mende,  
    noralde gabe,  
nekez gaindurik mende-lepoak,  
igeska doaz pagausoak.

Aldatu ziran beste txoriak,  
aldatu ziran urrun, guziak;  
    ez da bat ere gelditu...  
Bakar-bakarrik bart arratsean,  
enada beltza leio ertzean!  
    Nolaz nigandik urrundu?...

### III

Txio ta txio, ega motxean,  
enada beltzak leio-ertzean  
    itunki negar dario...  
Nolaz ixildu ene txoria,  
zintzilik zeukan kabi guria  
gabaz izoztu bazaio?...

Iñolaz ezin... ezin eraman  
geldi-geldiro jeixten ari dan  
elurra batez izotza.

Txori gaxoa!... egati arro  
abegi eske asekai dago;  
noizbeinka txio zorrotza!...

Ideki nion leiatil xarra!...  
ta ideki zidan bere paparra!  
Txio ta txio  
negar dario!

Nolaz ixildu ene txoria,  
zintzilik zeukan kabi guria  
elur ixilez bete bazaio?...

## IV

Ezin sinistu!... Ametsa ote...?  
Illotz... illotzik dakust, ai! ortxe  
elur-lorez estalia!...

Zeru berberak ordaindu zion  
lagun on batek ziñez zor dion  
atsegiñezko illobia

Atsedena adi, evada beltza,  
egin zak, bai, lo gozoa!  
Ire jolasen ordaingarriztat  
artu zak nere txaloa!  
Atsedena adi leio-ertzean,  
atsedena lagun zintzoa!...

*Zeruko Argia* 147,  
1931ko martxoa, 37. or.

*Mila euskal olerki eder*  
(Aurrerantzean MEOE) 961. or.  
*Eusko Olerkiak IV* 1933, 111. or.  
*Yakintza* 1933, 335. or.

# LANDARETXO AMESLARI!...

Lorategiko lili txurien aizpa oztiñak  
laztandu zuten landaretxoa erne zedin;  
ernemin beroz eman zizkion udaberriak  
orrian ainbat urrin zerien lore-pinpin.

Orriak ainbat usai gozozko lore-pinpiñak  
margo bikaiñez jantzi zizkion uztargiak;  
t'egun urratzez mendi gañetik laztan epelaz  
zabal zizkion pipil xamurrak eguzkiak.

Zabal zizkion leñuru batez pipil-orriak...  
Dirdir zegiten lore-kolkoak intz-tantoaz...  
jira ta bira pinpilinpauxa jostalariak  
loretik lore lilluratuak pozik doaz.

Zoratu dira pinpilinpauxa margolariak...  
Dantzan ari da euskal-zozoa txotx batean.  
Burrun biaz leiar xakona txukun mizturik,  
erle politak erdi-gordeta orripean.

Urrin darie, urrin gozoa lore-kolkoak;  
laztan damaie aize ariñak jostalari...  
Ta ibai ertzean, pozkaien mende zama joriaz  
landaretxoak egunik egun amets dagi!...

Zama joriaz landaretxoak,  
andaretxoak amets dagi:  
«edertasunak jabetzat naute,  
lorategiko nagusi ni».

Landaretxoa, landaretxoa!  
zure ametsak... Amets zoroa!...  
Noletan zure amets-gezurra?...  
Ez al dakizu azken adurra?...  
Landaretxoa, landaretxoa!  
zure ametsak... Amets zoroa!!

Esnatu zaitetz alik lasterren,  
odei azuna eldu baño len...  
esnatu garaiz gaxoa!...  
Barrendu zazu sakon sustraiak,  
sendotu laixter lore-orriak...  
indartu zaitetz naikoa!

Entzun nuen ai! tontor ostean  
ortots zorrotz bat, tximist tartean,  
eraso beltzen orroa!...

Esnatu zaitez, esnatu arren!  
ekaitz gaiztoa eldu baño len!  
Esnatu garaiz, gaxoa!!

Orain zer dakust?... Zugaitz ezurra!

Lorien ordez... orri zimura!...

Adar-ertzetan txingorra! ...

Nigan zer dakust?... Odei mingotza!.

Naigabe latzen arantz zorrotza!...

*Au bai esnatze gogorra!!...*

*Zeruko Argia 150,  
1931ko uztaila, 86 or.  
MEOE 962. or.*

# NOLETAN GERO?

## I

Noletan zure atsegin-jaiak...?  
Noletan zure zorun-eztaiak...?

*Zer dezu, Artzai Ona?  
Nola gaur abeska...?  
Nola zure biotza  
maitasun-gañezka...?*

Ikus ziñudan mendirik-mendi,  
ikus ziñudan oiuka larri...

*Malko sendo, garratzak  
ixil zerorkizun.  
Naigabe latzen batek  
nunbait mintzen zindun.*

Amiltegi ta leize-ondarrak  
gartu zituen zure negarrak...

*Xamurtu nindun zure  
naigabe zorrotzak...  
joranez zerraikizun  
urrundik biotzak...*

Eskutu ziñan tontor ostean,  
txistu ta oiu bart arratsean...

*Mendi orpoan berriz  
zegon artaldia,  
orruka, noiz ote zan  
biurtzen Artzaia...*

Nola gaur zure malkoen ordez,  
abeska zakust pozaren pozez...?

*Nola biotz-arantzak  
lore gaur biurtu...?  
Nola barren odeiak  
leñuruz urreztu...?*

Noletan zure atsegin-jaiia...?  
Noletan zure zorun-eztaia...?



*Zer dezu, Artzai Ona?  
Nola gaur abesten...?  
Nola zure abotsa  
ezti da biurtzen...?*

||

Lertu naiezka daukat biotza,  
agertu da-ta nere bildotsa...

*Urrundu bazitzaidan  
atzo artaldetik;  
gaizkatu det gaxoa  
otsoen mendetik...*

Arnas-estuka, odolustua,  
illurren zetzan bildots galdua...

*Tantoka zerorkion  
tantoka... odola;  
ta artu nuen lepoan,  
odol zeriola...*

Osoitu nion saiets-ezurra...  
Urrindu lorez ille kixkurra...

*Besoetan daramat  
maitetsu laztantzen,  
beste ardiak ere  
alaitu ditezen...*

Nolaz ez egin atsegin-jaia...?  
Nolaz ez egin zorun-eztaia...?

*Gertuko diot orain  
bazkari galanta,  
poztu gaitezen denok  
bazkari au jan-ta...*

Lertu naiezka daukat biotza,  
agertu da-ta nere bildotsa...

*Nolaz ez gero, seme,  
nolaz ez abestu,  
illik neukan bildotsa  
gaur badet arkitu...?*

*Zeruko Argia 151,  
1931ko uztaila, 100. or.*

# ZERBAIT BAZUEN!

*(Azkoitiar J. Luis Abaren  
oroitze maitagarriaz)*

## I

Zorun egaka... Egun-sentia. Giro epela...  
Astiro xamar piztu... da euzki-txingarra...  
Muxu nagiaz urrezten ditu euskal-txuntxurrak  
ta ipar-alderontz igeska doa artizarra...

Usotxo bat lez, larre-sustraian txukun etzanda,  
lotan dirudi basetxe jator, kaskarra...  
ta ipar ariñen zuzmuru leunak noizbeinka dakar  
ollar gartsuen abesti alai, goiztarra...

Zorun egaka... Egun-sentia... Giro epela...  
Eretsu dator errekatxoen marmarra...  
Sorgiñen mende jolastu ziran laño zurizkak  
banatu dira, laztanduz oztin leiarra<sup>3</sup>.

Zorun egaka... Egun-sentia... Giro epela...  
Zorion eske oraindik nere bularra...

## II

Ikusi nuen... ikusi nuen artzai mutilla  
euzki berriaz, menditik gora, zerbaiten billa...

Ikusi nuen!... Ekiñak ekin,  
aldapa gora egun txintakin...

Emaitz joriaz ama Sortitzak agur zegion;  
baño... gazteak... zerbait bazuen... Igarri nion...

Igarri nion!... Estu zijoan artzai gaxoa...  
Zerbait bazuen!... Tantzoz zerion malko beroa...  
Sarri nekustan auspez jausia...  
Sarri nentzuen oiua larria...

Neronek dakit: zerbait bazuen!... Ez nabil oker.  
Arkaitz-erraiak otseneraztuz dagerke laster...

Zerbait bazuen! Ezten mingotza etsaiak sartu?  
Igarri nion!... Ekaitz-odeiak biotza nastu?  
Badakit zer dan goibeltasuna!  
Badakit zer dan biotz illuna!

Baña... ez digart zer zebilkion biotz-unean!...  
Ez dakit nolaz igo zezaken arnas betean!

### III

Negar-zotinka, menditik bera, dator artzaia  
ta itun dixuri ezkillatxoak il-eresia...

Gazte berberak egiztu zidan...

Gezurra danik ez iñork esan:

*«Anai bat nuen (goian al zaude), anai eztia...  
Lurpetu dute, ta arekin batez nere bizia!!»*

\* \* \*

Egun-sentiko zorun-egaren ega sarmiña!  
iratzarri dek nere barrengo txori oztiña!!

Iruña 1931-VII-3

*Zeruko Argia* 153,  
1931. iraila, 133. or.

# «MAITASUNA EZ DA MAITATUA»

Udazkena zan. Odol tantozko  
ezti-margoa  
eguzki-galdak zixurin.  
Ibar-gangarrak doi-doi bekozten...  
Arrats-giroa  
atsegiñaren atsegin.  
Sartalde-goian izpi trinkoak  
jolas zegiten.  
Ibai-ertzetan sorgin-ardoak  
ditu moxkortzen  
sasi-ama ta xulufirin.  
Muñoan ziarduten aspaldi poxpoliñak;  
baratzean txoriak txirri-otska lertzen.  
Ostendu zan euzkia, «urrezko talo ederra»,  
lurriñez sagardia zuela estaltzen.

Ta amilka daror mendi-kolkotik  
itur-aria,  
basauntzen mama gozoa.  
Untzak lanbrotuz iges dirudi  
suge lodia...

gorde-ageriz lepoa.

Ta abeska poil-poil, zurrunbillotsu,  
mur-mur ta zotin,  
bere betiko leloa,  
astintzen ditu sarats itunak  
ta arindu ezin  
negarka zegon xoxoa!

Txioka dabil xoxo mindua  
adarrik-adar:  
zerbait zekusan sasian...;  
lotan zetzala pizti zarren bat,  
narraska zear,  
lapurki sartu kabian.  
Ega motxean minduki dagi  
pir-pir samiña,  
kulunka sarats-gerrian.  
Iruntsi naian badabil nunbait  
pizti muskiña...  
badakus zerbait azpian.

Maitasuna gañezka, naigabea tontorka  
ara or Asistarra, Goi-gotzon galdua.

Sukarretan biotza, urraturik bularra,  
zauriak gori-gori, ai! odolustua...  
«Ene nere Jaun Ona!, oi! aundiz ziotsan,  
ene! maitasuna iñon ez da maitatua!»

Xamurtu zuten xoxo-amaren  
pio zorrotzak!  
biozti urbil zitzaion...  
«Zer dek negarka, xoxo anaia?  
Jarrai mirotzak?  
Ator niganontz» zesaion  
«Kabi barrendik etsai maltzurak  
atera al aute?...»  
berriro galdetu zion.

Esku ertzera, *parra!*... egatuz  
kiñuak tarte,  
baietz, baietz!... zerantzuion  
«Egia diok beraz, orrazturik ziotsan,  
ire laguna nauk bada. Noruntz dek kabia?»  
*Purruts!*... ega batean, sasipean sarturik,  
adierazi zion nun zegon etsaia.



Ura etsaia!... So dagi aruntz  
ta arri biurtu!:  
kabian suge zitala!  
Ume tartean biribildurik,  
guzien buru,  
zai zeukan kankar zabala.  
Amorru biziz odol-usmoka  
zegoen garaiz,  
limurtuz larru azala.  
«Suge anaia, suge anaia!  
nolaz ari aiz  
itotzen ume makala?»

Eldu zion lepotik sumindurik Prantziskok,  
astindu zuan zumez, urratuz eztena.  
Ta irristada luzean, lerdea zeriola,  
eskuta zan txistuka sasien barrena.

Moko xabalik ume minberak  
jan eske zeuden:  
eldu zitzaien Prantzisko...  
Ta amari batez beatz-mamiaz  
eman zizkien  
igortzi leun ta jan naiko.

Maitasuna gañezka, naigabea tontorka  
biurtu da negarrez Serapin mindua.  
«Ene!, nere Jaun Ona!, suge gaiztoak nunnai,  
Maitasuna ez da-ta guztiz maitatua!»

*Zeruko Argia* 154,  
1931ko urria, 148. or.

# ILLARGITARA

*Pulchra ut luna...*

Nolaz diteken, nongo gertari  
iges dagio adimenari...

Ta alaz ta ere,  
egirik bada,  
eskutu auxe  
errañukada...

Sortzetik, Miren, Erruge zera,  
Ama ta Birjin biak batera!

Kopet-mamia gotargiz arro,  
sakona dazaut, naizenez txarro...

zenbat dagidan  
ega gorago,  
ainbat, zalantzan,  
dakust arago.

Ta ala badere, Erruge zera,  
Ama ta Birjin biak batera.

Arrats-zoriak illuna dakar,  
esna-eraziz ontz ta xaguxar...

Oro geldi da.

Otsik iñun ez...

Sorgin egada

guzion gañez...

Sorgiñak berak txistua jo du  
ta illargi-izarrak izeki ditu...

Izarrak lagun, illuna etsai,  
itsas-ertzean nago egi zai.

Illargi bete,

adar urdiña,

lurrun irule,

zillar-joskiña...

itsas-auspoak darakar zikor.  
ta izar erdian apurka dator.

Illargitara... oro geldi da,  
marmarka itxaso... neurriz taupada.

Pizti-txirrika

ulu eziñik...

Buru-ausika

gogait egiñik,

barren-odeiak noiz ta beltzago,  
itsas-orpoan nasturik nago.

Illargi meak dagit musuka,  
ugin-gezalak aitz-atzimirka...

Ta itsas altzoan  
musu borobil...!  
Noruntz digoan  
aruntz darabil...

Nondik dan ori... asege nago...  
Uretan izan geroz geiago!

Ugin-barrenak argiz josiak,  
itsas-osiñan par illargiak.

Itsas-erraian  
par illargiak,  
jira nasian  
kiñu pitxiak...!

Garden azala, ditztiz ondarra,  
garbi azpia, gaña leiarra...!

Illargiaren biko bizia,  
izar txurien kiñu berria...!

Ugin-azala  
urratu barik,  
barren-itzala  
urrez jantzirik...

be-bean dabiltz parre ta mugiz,  
legor-bustian batera biziz...

O Miren eder! Erruge zera,  
Ama ta Birjin izar antzera!

Irudi dezu  
itsas-kolkoa...

Ta askatu degu  
korapilloa...!

Nondik ta nolan, argitara da,  
ezkutua gaur erraiñukada...!

Itsas-errota kanta-kantari,  
ta izar-ugiñak elkar-dantzari...

*Zeruko Argia* 156,  
1931ko abendua, 159. or.

*MEOE* 955. or.

*Eusko-Olerkiak IV* 1933, 105. or.

*Yakintza* 4, 1933, 251. or.

# ARRANTZALIEN ARRATS-OTOITZA

## INTROITUS

Kantauri-itxaso, Kantauri-itxaso,  
eusko zangarren ekin, eraso:  
zure orruak,  
ekaitz nastuak,  
arrantzalien azken orduak,  
gotargi beroz nai ditut jaso.

Arkaitz buruan arrenka nago,  
betorkidala sua... zutago:  
suak ta garrak,  
txingar-aparrak  
urtu bizaizki illun-ondarrak  
argitaratuz geroz geiago.

Ene leiaren izar aratza,  
losor-sustraiian muker badatza:  
    une gezala,  
    oiar zabala,  
garaimen zarren gudots-itzala,  
euskal-malkoen errota latza...!

Piztu bezate zure orroak,  
kunkunduz pin-pin ugin-lerroak...!  
    Beingoaz beingoz,  
    esnale betoz  
tximist-ortotsen durundi zorrotz...  
Leiartu nigan sukar-tantoak.

Txingar goritan suspertu, Jauna,  
adimenaren moteltasuna.  
    Bidali, arren!  
    damaidazuken  
argibidea; betor, lenbailen,  
Maitagar-lumen igortzi leuna.

Irauli txinpart, oleski-garra.



Urratu zorrotz nere bularra...  
Ibaika betor  
zugandik, Aitor,  
susno ixillen indar durunkor;  
betorkit zure gotuts-aztarra.

\* \* \*

Kantauri-itxaso, Kantauri-itxaso,  
eusko-jazarren ekin, eraso:  
zure orruak,  
ekaitz nastuak,  
itxas-gizonen azken orduak,  
gotargi beroz nai ditut jaso...

## **VESPERALIA**

Itxas-ertzean illunabarra  
loretzen dager arkaitz-leiarra...  
Gallurrik-gallur,  
koroï-antzikur,  
odeiaz lore, geziaz itur,  
oerutzen da eguzki garra.

Arrats gozoa. Giro epela.  
Itxas neurgea urre bezela...

Ugin kixkurrak,  
lenaz ziurrak,

orain pizkortzen gauen beldurrak  
ixil ereinduz itzal motela.

Mendi-txuntxurrak baño arago,  
zeinbat jeixten dan, ainbat gorago,

betarte biak  
zorrotz josiak,

euzki zarraren azken izpiak  
arrano beltza edari dago.

Urruti dakust jolas betean  
ur-mendi-sailen apar sarean

kaiu mordo bi...  
Ugiñak sarri,

ur-azalean borboil, jostari,  
negar dagite lurrez lertzean...

Arrats gozoa. Giro epela.  
Itxas neurgea urre bezela.

Gañez osiña  
geituz urdiña...

zillarren gainka labe irakiña,  
ta artega nondik lurrun txapela.

## **HOC OPUS EORUM**

Goizean goiztik arrai-ontziak,  
Euskal-erriko arrantzaliak,  
urrundu dira  
itxas-erraira,  
ur-saillak gainduz jira ta bira,  
lotan utzirik ama-semiak.

Urrundu ziran goizean goiztik,  
ama-semeak lotan utzirik...

Zeinbat katramil,  
arraun ta makil!

Zeinbat arrisku, zeinbat iskanbil  
ugin barrenak sarez jostean.

Urrundu ziran arrantza asmoan.  
Ostendu ziran uren kolkoan...

Tilintalanka,  
astinduz branka,  
orain emen ta gero an zanka7ó,  
ugñen mende egun osoan.

Urrundu ziran gizarajoak,  
bear bearrez lanai lotuak.

Nai eta naiez  
atsedenik ez;  
eguzkiz ezik, ekaitz-egunez,  
arrantza orri uztarrituak.

Urrundu ziran goiza baño len,  
bañan oraindik ez dira agertzen...

Zeinbat katramil,  
arraun ta makil,  
zeinbat gaitzurre, zeinbat iskanbil,  
aruntz ta onuntz, an eta emen!

Tontorrik-tontor illunabarra  
ubelanturik itxas-baztarra...  
    la lasterka  
    arraiz gañezka,  
Zuzen erdituz uren kopeta  
dagerzke, poztuz uri gangarra...

## **ASSUMUNT PENNAS...**

Lurbira datoz leitsu egaka,  
girrin ta txio...! zalapartaka  
jolas zegiten kiau-mordoak:  
zeñen gozatsu, zeñen biziak,  
zeñen erraz ta garailariak  
gaintzen dituzten arkaitz-lepoak!

Baño... an, urrun... an, marboillean  
itxasoaren malda ertzean,  
    nabaitzen ditut  
    mukulu batzuk...  
Zer liraken nik garbi ez dakust.  
Igari dabiltz ur-azalean.

Orain dakuzkit, orain dakuzkit!

Zer liraken, bai, ondo badakit:

«arrai ontziak,  
batel txuriak...»

Auxe damate susmo begiak;  
auxe zerbaitek adierazten dit.

Arrantzaleak, arrantzaleak,  
urrundu ziran euskal-semeak...!

Ez nabil oker:  
emendik laster

asaldaturik zoko ta bazter,  
nentzuzket bere irrintz luzeak...

## **ET SUSCIPIENTES OSCULATI SUNT**

«Ujujui...! Aufa». Jo griñaz zuzen...

Kontuz ortikan...! Bira bat lenen!

Denok batera  
jo legorrera...!

Ekin, mutillak, ekin kaiera,  
gauaren aurrez eldu gaitezen...!

Ara nun diran arrai-ontziak,  
su-buru beltzak keaz nasiak:  
    ara goi-bera  
    keaz batera  
saiets-ezurra pitsez leuntzera,  
barren orrazten moltso gaziak.

Bejondeizula, ontzi-samalda,  
zure aztarna ezaguna da...!  
    ...Eta kaiean  
    sartzen danean,  
ama-semeak aita artzean,  
abegi onen dantzut zarata...

Ura, bai, dala, ura zoruna  
besarkatzean sendi kutuna!  
    Aiek muxuak,  
    malkoz nastuak,  
elkar naiaren espak sortuak...  
Ura egizko maitetasuna!

Lotu dituzte ontziak nasan:  
batak besteai lagundurikan,  
lokiak batu,  
sareak bildu,  
arraiz-saskiak elkarri artu,  
guziak dabiltz arindu-guran.

## **NOX, SICUT VESTIMENTUM**

Garai ederra. Egurats epel...  
Ezain erortzen irunts-txaramel.  
Lurrun-itzalak irauli-zale...  
Garai ederra... Lurra baretsu.  
Sorgin-egadak txistua jo du.  
Ama-Sortitza lurrun-irule...

Illunpe lodi, lezaunditarrak  
piztu dituzte goian izarrak...  
Ara antxen ernai  
beti gure zai;  
oker bagabiltz kiñuka etsai,  
ixuriz, tarte, suzko negarrak.



Lurrun-maindire zuri-zuriak  
lotu dituzte mendi gorriak:  
Basajaun zarrak urrun damate...  
Ibar zabal ta goiko tontorrak  
berdintzen ditu laño moxkorrak.  
Illun-egalak oro dastalte...

Bana-banaka lengo kaiuak  
utzi zituzten arkaitz-buruak:  
ixkutu ziran gauaren bildur.  
Noizbeinka dantzut negar larria:  
pizti gautarren ulu-intziria...  
Darantzuiote ontzak ta zakur...

...Garai ederra. Egurats epel...  
Ezain erortzen iruntz-txaramel.  
Lurrun-itzalak irauli zale...  
Garai ederra. Lurra baretsu.  
Sorgin-egadak txistua jo du.  
Ama Sortitza zorion-eule.

## SACRIFICIUM LAUDIS

Arrantzaleak, arrantzaleak,  
euskal-abenda, euskal-semeak:  
ixo guziok, ixo mutillak...!  
Goit-ots-aria... Goit-ots-soñua...  
Entzun, ara-ta... otoi-ordua...  
«Otoitz, dasaigu, otoitz», ezkillak.

Ea! ezkillaz otoitz dagigun,  
zeruko izarra gurtu dezagun.  
Ixil-ixilik,  
biotz-mamitik,  
ementxe gu ta besteak andik,  
esker-lorea eskein zaiogun...!

Ezkillak goiko deia dala-ta  
aitu da orko jardun-zarata.  
Txintik iñork ez... Otoitz-aroa!  
...Orain zarrenak, txalo bat jorik,  
«Agur», diotsa zut ta burutsik,  
mututzen dala ezkilatxo.

Denak on-onak, denak apalak,  
eusko zintzo ta biotz zabalak  
darantzuiote.

Ta itxas-gizonak, gazte mardulak,  
ama-seme eta aiton zimurrak  
otoi dagite...

## **ECCE IN NUBE FULGIDA**

Ipar-erraiari argi darie;  
urre-matazak galtzen zaizkie:  
orren zuria,  
orren diztia,  
orren mirari arrigarria...!  
Gotzon liraiñak laztan damaie.

Ara... badakust... izar oztiña!  
Ara antxen berriz... Neskutz bikaiña!  
Ara... oinpean,  
lertu naiean,  
txerren gaiztoa, tontor-ertzean.  
Ara... ageri da... Ama Birjiña!!

## **RESPICE, STELLA MARIS**

Miren Ederra, Miren Garbia,  
Euskal-Erriko Ama Eztia:  
goresten zaitut  
ta agur dagitzut.

Odol-malkoaz eskatzen dizut  
zaindu zazula Euskal-Erria.

Miren Ederra, Miren Garbia,  
arrantzalien Ama Eztia:  
zure aur onak,  
itxas-gizonak,  
enda zarraren txertu sakonak,  
bekarkizute ale gorria.

Miren Ederra, Miren Garbia,  
gure izkuntzaren Ama Eztia:  
lausorik gabe  
eusker a gorde.

Ziur zurekin iraun dezake...  
Eman narotsu, eman bizia...

## HOSTIAM VOCIFERATIONIS

Kantauri-itxaso, Kantauri-itxaso,  
eusko-jazarren ekin, eraso:  
    zuan bijoa  
    nere zantzoa,  
odol-garraren zurrunbilloa!  
Euskoen alde orruka jaso.

Kantauri-itxaso: Jainkoak nai du!  
Euskal-semeak suarka zaindu.  
    Irauli zaitetz  
    zapuzti kaltez!  
Arkaitza jo-ta birrindu bitez...!  
Errai gezalan arri biurtu...!

Naskaldu zaitetz gaben-gaberdiz  
ume dollor ta etsai-egarriz...  
    Aruntz-onunzka  
    lertu orruka...!  
Geitu amorruez, geitu burruka  
ta irentsi istillu ikaragarriz...!

Ideki zazu errota-atala  
ta irindu beren likits-itzala!

Gari-ots - garai`  
jaso abertzai!

Orru ta marru gorturik` jarrai,  
zigor-erazten ume zitala...!

Kantauri-itxaso: Jainkoak nai du!

Aitor berberak eskatzen dizu:

irauli zaitez  
zapuzti kaltez!

Arkaitza jo-ta birrindu bitez!

Errai gezalan arri biurtu...!

Zure asarre amorratuak

katz-egin bitza beren asmuak.

Yaurti, purratu  
suar jozartu

lorrinka narras loratzak gartu;

lurrak dar-dar ta kixkortu suak...!

Kantauri-itxaso, Kantauri-itxaso,  
eusko-jazarren ekin, eraso:

zuga**n** bijoa

azken zantzoa...!

Odol-garraren zurrunbilloa!

Euskoen alde orruka jaso!!

*Eusko Olerkiak II. 1931, 120. or.*

# USOEKIN GORA

Eleiz buruan dabiltz goizetik gabera,  
usotxoak egaka gurutzez goi-bera.

Eguzkira zillarra dixurite egoak  
ta aizean jolastean, esne-pipiltxoak.

Nork al lezazken,  
elur-usoen  
antzera, goiak garaitu!  
Nork, an... lurrean  
loia uztean  
gurutz saildua laztandu!...

Erakus zaidazute, zuek usotxoak,  
erakus zaidazute zabaltzen egoak.

Ta alkarrekin udaran joaz gurutzera,  
negutean zerurontz aldatuko gera.

Iruña 1932-I-10

*Zeruko Argia* 158, 1932ko otsaila, 21.or.

*Eusko Olerkiak IV* 1933, 116.or.

*Yakintza* 1933, 337. or.



# ESPAK

*«Popule meus, quid feci tibi?»  
Zertan gaitz egin dizut, ene Erria?*

Norañoko miñaldi, nolako atsekabe,  
biotz onek bakarrik esango lizuke.

Oinperatua nago guzien aldetik  
ta atzindu naian dabiltz lurraren gañetik.

Euskal-erri mamia, erririk maitena,  
zergatik damaidate gaur damaidatena?

Zertan gaitz egin diet? Zertan ditut mindu?  
Zerorrek, ene erria, erantzun zaidazu.

Erri guzien gaindi autetsi ziñudan  
ta aspaldi nere eskua sumatu zenduan.

Garaille izandu zera egundo Nerekin...  
Etzaitezela zu gaur batu etsaiekin.

Zure asaba zarrak maite bai-ninduten  
ta aurrerapen-aziak ixuri nizkien.

Ta alaz ere zuk orain, bein itsumusturik,  
baztertuko al nauzu lur maite ortatik?

Euskal-erri mamia, zertan gaitz egin dut?  
Orain Ni ez artzeko, zertan mindu zaitut?

Eman nizun euskera, eman nizun garra  
ta amaika aldiz izan naiz euskoen indarra.

Ta ara nola gaurkoan norbaitzuk dabilzan  
nere uztarri leuna kentzeko asmotan...

Ara nola, gordean, piztitzar maltzurak  
malmutz ito nairikan usotxo xamurrak.

Zertan bada, erria, zertan dut gaitz egin  
maitatzea ezpada maitasun onekin?

Noiztik-nora gaurdaño ezertan Nik mindu?  
Erri maite-kutuna, erantzun zaidazu.

Eman nizukeana, oro eman nizun...  
erantzun ba, oraintxe utzi nazakezun.

Aintziñatik izan-da nere begikoa,  
ezaidazula gaur zuk atera malkoa.

Geroratu baño len zentzuratu zaitez  
ta alkartasun estuaz berriz lotu gaitez.

Jaso zazu lepora nere uztarria  
ta arinduko dizut Nik zure min-larria.

Ez nazazu baztertu, ez utzi atzera  
ta askatua zu laister ikusiko zera...

Euskal-erri mamia, Burutzat ar nazu.  
Zure Buru naizela, zorioneko zu.

*Zeruko Argia* 159.,  
1932ko martxoa, 37.or.

# ALLELUIA!

Oztin damait ortzeak, eguzkiak urre  
ta argi-loreen erdi piztu naiz garaille.

Atsegingai dagozkit zeru ta lur-ama,  
esku naramatela poz-biderik barna.

Tinka begiz jo naute mimiko guriak  
ta agur-pipirri dauzkat leiaka txoriak.

Ñir-ñir dakarkit intzak, janzkia loreak  
ta itzul-inguru, dabiltz aingeru taldeak...

Jeiki bitez erriak amorru beltz gainka  
ta arnaseaz, ez beste, or dira lorrinka.

Zuzen bedi berriren onat borreroa  
ta ikus beza nora dan bere gorrotoa!

Ikus beza buruan, arantza orde, izpi  
ta ubelune bakoitza zorion-iturri.

Ikus beza bularra dirdian urrinka,  
ene uso larriei kabia eskeinka.

Ta aittu bazidan bein bat miñez-min bizeitza,  
ene baitan nuen Nik bizitzaren giltza.

Ta argiarekin batez jeiki naiz garaille,  
sortitz oro detala lagun ta pozkille...

Erraiñu-lore dago goian gurutzea,  
besoetan dularik pizkunde-lorea...

Poztu bitez gallurrak, kanta beza beak  
ta abestien otsera betoz maitaleak!

Betoz, itzali da-ta ekaitz eraso  
ta ageri da poztari uztargi gozoa...

Ekaitzetik jaio naiz ibaika ditzia,  
arantzatik oi dan lez arrosa zuria.

Ez da lurtarrantzat beste poz-biderik,  
elordi latza zear abitzea baizik.

Malko-ttanttan ezpada ez dio emango  
uztaiak odeiari, ez muñ ta ez margo.

Kalbariotik nator urrez buresturik,  
udalena bezela negu gordiñetik...

Ez bedi, ba, bildurtu ene maitalea,  
laño badakus noizpait biotz-mugaldea.

Beti oi du ekaitzak irripar-lorea  
ta ara Ni gogoaren eguzki betea...

Eskutuki odeian erne ta zai nago  
zenbat durun ekaitzak, ainbat urbillago.

Ta iñoiz lertuko balitz eztanda-marruan,  
dir-dir nagerkioke saria eskuan.

*Zeruko Argia* 160,  
1932ko apirila, 52. or.

# **URKIOLAKO ANTONIO DEUNARI ESKARIA**

Begiekin ez arren, bazakust biotzez  
maitasunak damaidan argiaren bidez.

Ortxen zakust, Andoni, Anbotoren koxkan  
pagauso bat bezela egarako itxuran.

Ortxe zaude leiatsu noiz gu etorriko,  
gure aiton zarrak lez, onak irixteko.

Urkiolara bada zinitzaigun jetxi  
nai degun ainbat esker emateko guri.

Maitasun-zalea da euskalduna, bañan  
arkitu ere badu maitalea zukan...

Zorionez badegu biotza non ustuz;  
badegu, gau ta egun, norekin mintzatu!

Zoritsuia benetan orra lijoana:  
etzaio damutuko artutako lana!

Naigabe latzik balu... poztua litzake  
ta illunean balebil eguzkia luke...

Zenbat aldiz bada or, gure aiton zarrak  
auzpez erori ziran, erreta min-garrak!...

Bañan... bai jaso ere zure oñetatik,  
zekarzkiten arantzak lore biurturik...

Ortxen arkitu zuten biotzeko indarra;  
ortxen, ekaitz aldian, poztasun-izarra.

Ta itxaso aserrean barrundu baño len,  
laguntza ta argi eske orra zijoazten.

Eleiza ta arkaitz oiek al baligute esan  
zenbat esker iritxi zizkiezun bertan!...

Baña argi dasaigute orko sineskaiak,  
biotzeko odol-malkoz neurtu ta bustiak!



Zuk, Andoni, eskerrez ta asabak agurka,  
baziñituzten ortxen amaika burruka...

Ta arritzeko ere ezta olako zalea,  
euskalduna bai-zan ta zure amandrea!

Izan dituzu, noski, poz-orduak ere;  
bakartasun-gaueetan argi ta adiskide...

Ordaindu izan dizute zerbait zor galanta,  
osotara ezpada, osoaren tanta...

Zer baña? Ez al zaude gaur ere, Andoni,  
esku-zabal ez ezik, eme ta iratzarti?

Ez al ziñan ba jetxi Urkiolara zu,  
ekaitzean genezan non jo ta aterpetu?

Aspertu ote zera, nonbait, eleiz ortan,  
ez dakuszulako gaur iñor Urkiolan?...

Ez ori! Or zaude bai, oiuka goi-goitik,  
ez gaitzela aldendu asaben bidetik.

Goazela guziok zuregana laister,  
datorkigula-ta naiko etsai oker...

Zure begirapean babesten bagera,  
lertuko dala illuna etsaien gañera...

Entzungo al ditugu zure dei maiteak;  
eragingo al digu zure eskubideak...

Aiton zarrak bezela, guk ere, Andoni,  
elduko bagenio zure esku onari!...

Arren! begira iguzu antxinan bezela:  
zuzen zazu berorrek gure euskal-batela.

Luza zazu eskua, ta itz bat ez besterik,  
gesalduak ditugu etsaiak bertatik.

Zaude, zaude gurekin: elkartu gaitzatzu,  
nora ere goazen, ara darraiguzu.

Begira, bai, Andoni: suzko sorgin ori  
ez dedilla geiago Anbototik jetxi.

Gorrotoa erein du biotz geienetan  
ta anaiak berak gaitu nasi burruketan.

Lotu zazu ba, katez, arkaitz barrenean;  
dagola antxen ulukaugarren artean.

Gorrotoa sortzera etorria bada,  
berari dioguna... arrapa dezala!

Ta alaz ere baletor miru beltz, gaiztorik,  
ez dezala iges egin zure sarepetik.

Urka itzatzu goi ortan, batera, guziak,  
goizean oi duan lez gaua eguzkiak.

Bultza zaiezu gogor Anbototik bera  
ta Anboto bera gero durundiz gañera...

Utziko al digute orrela pakean,  
ez genduken ezkerre beraien artean.

Baztertzerak badatoz Lege ta Jainkoa,  
moztu zaiela berai gaur bertan lepoa!...

Eutsi, eutsi, Andoni, Euskalerrari,  
aritzak oi dion lez alboko untzari!

Bildu zazu estuki zure lokarriaz  
ta atera burrukatik bizi ta garaiaz.

Batu, ainbat lasterren, euskal-artaldea  
ta alde oietan eman zeruko larrea...

Ageri zaigula, bai, guri Urkiola,  
ekaitz-egun beltzetan dirdir dariola!!...

*Zeruko Argia* 162,  
1932ko uztaila, 87. or.  
*MEOE* 964. or.

# ANTZEKIA

Lore begian kunkurrunkun  
erle gorritzak burrun-burrun:  
zer ote dio, zer lioke,  
lore beraren nini-lore;  
dantzatu ala barruratu,  
egoak jo-ta miazkatu...  
Zer ote dio, zer esango  
loretxoari kukuriko?

Erle gorritzta, zer diozu  
lore begian marmaritsu?

Illargiaren kukupean  
urretxindorrak udastean:  
zer ote dio, zer lioke,  
txiruliruka gaua beste;  
sarats itzalen kulunera  
ta ibai-erroten dunbotsera...  
zer ote dio, zer esango  
illargiari aopeko?

Urretxindorra, zer diozu  
illargipean txiruliru?

Zer diotsudan, Ama, Zuri,  
lore ta illargi zeran orri...?

Erletxo naiz, lorea Zu:  
zer diotsudan badakizu!  
Ta illargitara karnaba lez,  
Zugana nago maite-miñez...

Illargia Zu, ni karnaba...  
bikote ederra... jakiña ba!...

*Zeruko Argia* 164,  
1932ko abuztua, 132 or.  
*Eusko Olerkiak IV* 1933, 117. or.  
*MEOE* 956. or.  
*Yakintza* 1933, 338. or.

# BARRUNTZA-LEIOAN

*«Dilectus meus mihi et ego illi, qui  
pascitur inter lilia» (Cant. II-16)  
Ene maitea neretzako ta ni arentzako.  
Onek fana lili tartean du.*

Loak ar bitza, loak ar bitza gudozte-kantak.  
Dunbost zakarrak beude gaurdanik ixillean...  
Zarata orde, otsera bitez, biotz ormetan,  
lelo xamurrak, argiz ez ezik, gau beltzean.

Erna bekio, zugaitz ill oni, kima berria;  
loretu bedi maite oparen gar zurira.  
Ta itzal goxoan aterpeturik, josiko ditut  
adi sutsuak, orri ta loren intzirira.

Nora noake, maitasun eske, neregan baitet  
ederrik oro berezko ditun Maitalea?  
Nola nabilke, argi-zaletsu, barnen baitigart  
sukar-miazka kixkaltzen nauen su-labea?...

Oraindañoko ene begien lauso gorria!  
Barren etxeko axolage ta lo-zorroa!  
Irten-sartuka, joran-izerdi, jarduki-eta  
nabari ez nik, atezai zegon usotxoa!...

Izpi-zorrozki, geziko al nau maitale orrek!  
Lertuko al dit griña makurren gaitz-burua!  
Maite-gelako ardantegian estu loturik,  
moxkor nazala, natzaion gaurtik zoratua!

Uxa ditzala, oroitza zear digarozkidan  
ekaitz-laño ta elur aurreko bekaizketak.  
ipar mearen ega zurira joko dizkiot,  
amets gorritan, ernemin dauden maitaketak.

Badantzuizkiot, ixil bederen, barrun-barrunki...  
bere mintzaren zur-murru leun ta eresiak...  
aspaldi ontan laño narakar nola ixuriko,  
zor dizkiodan asperen-tanta bioztiak...

Bil nadin noizpait, ero galanta au, barren ontara.  
Nagon geldixe biotz-leioan tinkatuki,  
maite-pilpillak daragitala jo ditzaiodan  
espa bigun ta leia zorrotzak txinpartari...



\* \* \*

Maite-aroan... lur maite-miñak garratx ninduten;  
ez jan ez edan, arat-onata narabilten.  
Biotz-kondoan kabitu ziran zale mirriñak,  
garai obeko azi gazteak il zituzten.

Larrutu zidan barren zugaitza eguzki-ezak;  
pipi-gorriñak jan zizkioten kimatxoak...  
Ta azala zear bidetu ziran txingurri beltzak,  
bana-banaka, moztu zituzten goiko ostoak.

Migura baizik etzan ageri adar ertzetan;  
beso zaintsuak, ezur iduri, sutarako.  
Ta illundi-loan lasaiki zetzan muxar gaixtoak,  
begiz jo zitun bere sustraiak kabitako.

Beingo batean, ate-danbada entzun deritzat,  
ta atera nintzan, giltza eskuan, an nor ote...  
Ta idekitzean... ura bai zala maixtar bakoitza!...  
Ondasun oro eskeñi zidan biotz-orde...

«Sar zaitez bada, erantzun nion, gela ontara...  
Ortxen zaudeke zure gogora nai adiña».  
Ta au entzutean zuzendu zidan argi-zirrara,  
ene! neregan ikusi nuen loi-osiña!

\* \* \*

Arrezkeroztik ene aularen sendotasuna!  
Arrezkeroztik barren etxeko poz ta atsegin!...  
Naiz laño egon zeru ta lurrak, enegan beti  
enegan beti euzki-urra dirdai-oztin!

Zabaldu zaizkit, noizbaitekoan, biotz-begiak;  
noizbaitekoan upatu baidet maitalea.  
Ta ikuste uts-utsez, bereixko balitz etxe ontatik,  
bertantxe nuke zorigaitzaren zastadea.

Beranduegi ai! zoritxarrez, ezagutu det;  
beranduegi ate-jokara naiz oartu...  
Egunik-egun, biotz-atean, noiz idekiko,  
ta itxu, beltz onek, muzin gaiztoan, ai! giltzatu!

Oraingo nere zentzu galduen itzarri ona!  
Oraingo nere begi lausoen ikusia!  
Lengo ederra narda dakuste; narda, ordea,  
emen litezken eder oroen iturria...

Emen dagokit, emen dagokit ene Maitea;  
biotzak baitu sumatzen bere agerpena.  
Zai dagokio, pozaren mende, noiz elduko ote  
zentzu guzien zorabio ta zoramena.

Auxe biotzen egon luze ta pilpil berdiña!  
Auxe ixillaren adigarrizko jardun gozo!  
Arantzak sartzen balizkit ere, nere biotzak  
ezten zulotik, zorun berria gaur artuko.

Igortzi-leunka, euslari dauzkat bere besoak;  
bere niniak, ene begien ur-ixpillu.  
Ta argi-jarioz dagizkidaken mintzo eztiak,  
esker berri ta biotz-jantzien edergallu.

Amasa batek darabil gure bular-auspoa;  
taupari berak biotz-unea pilpiratzen.  
Ta udalen-lorak eguratsera liraken eran,  
maite-larrosa muxuan zaigu gorritzatzen.

Maitasun-izpiz urtuki dago nere gogoia;  
zenbat jaramon, ainbat biotza goriago.  
Ta argi-dirdaiak lillura duan txoriñoa lez,  
galda zuritan, eguzki orri begi nago.

Mintzari baitet... mintza ni ere; ta ixil banendi,  
laister lekarkit biotz-taupadak erantzuna.  
Ta izpi-malutak joa bai nintzan, ernaratzen dit  
barrun-mamiko xamur-jarien leuntasuna.

Ta arreta luzez belarri nago bere mintzora,  
ziñez dalako ezta bere jardunean.  
Ta aize biguñak daragioten arrosa bik lez  
amets dagigu buruak gurka laztanean.

Ta ipar beltzera lore-pitxia barruntzen dan lez,  
gure gogoa ekin gaiztora ximurtzen da.  
Ta alkarri eutsiz, barruti ontan indartsu gera,  
orro ta txistu, gain dan tartean gaitz-egada.

Nere bizia ezta nerea, berea baño;  
Bera ordean nigan bizi zait bat egiñik.  
Ta intxaur-adarrak, ez oi duten lez esnerik gabe,  
nerez ez dakart jan-gai liraken zitu onik.

Baña nerenaz ezin detana, Maite onekin,  
naia dan beste, une batean egiña da.  
Oro dezaket beronekin bat; bañan au ezik,  
bertatik nuke gaitzik latzenen zaparrada.

Maite dut, maite...; maite, egaztiak egadak aña;  
maite..., illargiak kuku-igaria gauan beste...  
Maite nau, maite...; maite, dirdaiak ispillua lez;  
maite..., edertiak urne xaloak bezelaxe.

Ta argi-txintara elur-tantoak lerorzken eran,  
arraka darortz eguzkitara biotz-miñak.  
Ta izpi-urreak damaien bidez, loretzen dira  
aspaldi zurbil zirauten adar-kukuliñak.

Itxu-birari, aterea da xaguxar beltza,  
euzki-zerrendak txoko illuna tink orduko.  
Ta armiarmaren dantza-sareak dilindan dagerz,  
itur-ariak euzki-ixlan baño diztiago.

Urre ta lore dirdari dago barren-etxea;  
izar-jantzirik, zutirik daude onbideak.  
Ta agur-ereska makurtzen dira maite-aurrean,  
gaurdaño ezin legozken zentzun gaizkilleak.

Bizi berria txerta dit nere odol-zañetan;  
ote ta arantzak larrosa zuriz pinpirinpin  
Ta arkoskopera labain zegion goi-esker-ura,  
orain zugaitza muxuka ari da leiar-oztin.

Ixil nadin da... bertan dantzuzkit, arrosa tarte,  
urretxindorren xinta kixkur ta oroimenak.  
Ta berartantxen, izpi-bustika, egati dauden  
goi-usotxoan papar-aleko asperenak.

Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta;  
ene gogoak ikusi baitu aldaketa!...  
Gela ontara ene Maitea sar ezkeroztik,  
biotz-ezurak bai dute naiko loraketa.

Etorria zait, beronekintxe, ondasun oro;  
berezko ditu asma litezken on-iturri...  
ta udaberriak azi gazteai damaizkien lez,  
ene gogora esker-euriak dixurizki...

Ez al dit iñoiz iges egingo Maitale onek!  
Ez al dut ai! nik, etxe ontatik, baztertuko!  
Maite-aduak egingo al du, gu izan gaitezen,  
bera neretzat ta ni osoro beretzako!

Urtu dezala geroz geiago biotz-lausoa;  
zabaldtu bekik ezagueraren nini-izarra...  
Ta alkar izpien beroaz laister urre-kuskuak  
auts-antz nituzke, urrin-malutan, parra-parra.

Iñoiz ez al dit nagiak joko barren karnaba;  
ez al du utziko, asita dagon, xinta mea.  
Egunik-egun aituko al zait maite-leloan,  
gozatu dedin irakas dion Maitalea.

Ta abesti orren oiartzunera, pizkor genuzke  
maite-eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo.  
Ta arratsaldeak, izpi-euritan, lekarzkguke  
maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo...

*Zeruko Argia* 165,  
1932.eko iraila, 154.or.

*MEOE* 957. or.

*Eusko Olerkiak* III 1932, 2. or.

# OTOI, ADISKIDE...!

Il intzan il i ere...! Eraman induten...  
Ire itzalak ordea ni baitan dik lurmen...

Eta abia bai intzan  
laño ta eurite...  
beste alde ortan  
bai al duk aterpe...?

Sukarretan aitu zan Uda, jaun gorria,  
otzikaran utzirik, seme negartia...

Aurrari *pa* eta *pa!*... sukaldean ama  
min-ariaz ari da josten min-oiala...

—Esan, ama, esan:  
non degu aitatxo...?  
Aspaldi jun baitzan,  
laister da itzuliko...?—

Sutu zaio malkoz aurpegia  
ta alderaka ustutzen du biotz-intziria...

Lotzen du besoetan laztanka umetxoa  
ta ixillean txukatuz begi-jarioa,

—zer diozu, seme:  
non degun aitatxo...?  
Aitatxo, bai...! zure  
aberrian dago...!—



Ta artean txikiari eskua altxaturik,  
—antxe pian, diotsa, bitxiz buresturik...—  
Geroztik iñork aitaz galdetzen badio,  
belaxen eskutxoaz aurrak darantzuio.

Ta aingeru batek itaz bai zidak gaur esan,  
nigandik aldatzean noruntza jo uan...

Otoi, adiskide,  
otoi nere alde...!

Iruña 1931-Xlean

*Zeruko Argia* 167,  
1932ko azaroa, 184. or.

*MEOE* 954. or.

*Eusko Olerkiak IV* 1933, 119. or.

*Yakintza* 1933, 339. or.

# ONATX, ERLETXOAK

Muñorantza doa Yosutxo, kantari,  
belarritan zintzil bi-iruna gerezi.

Mutil xalogorik!... Zeren billa ote?  
Kilkerrak, marmari, agur dagiote.

Baño, oar!: beko eultzaren burrunba!  
Erle danak, leitsu, ager ixkutuka...

Zer gerta zaie, ba, Yosefen erleai?  
*Lore* bat ikusi muñora, poz-dirdai...

Egalda zaio bat: ezarri da ttente  
ezpain-marrubian —arrosa arek uste—.

Zizta du ta, ene! odol-ttanta atera;  
kutuan miztuta, berriz egatu da.

Egun gutxi buru, Yosef ezti billa...  
Baño... zer da an? Jesus! Eultzeko iskanbilla!...

Erle danak itsu, zoro, norabage,  
ninitik zerbaitek eutsiko bailie.

Ta aberaska-urrean, izarño bezela,  
urrin-yarioka, ñir-ñir, odol-ttanta!

Arrigarri bai au!... ta artuz aberaska,  
poz-ttuttuli yo du Andra Mirengana.

Baña Andra Mirenen sen zorrotz, argia!  
Ikusi orduko barrendu guzia...

Yosutxo deitu du; laztan dio gero  
ta aberaska bera yaten eman dio...

Sagara-muñoan, Yosu gorde zaigu:  
Onatx, erletxoak, *Lore* ori miztu!

*Zeruko Argia* 171,  
1933ko martxoa, 44. or.

*MEOE* 956. or.

*Eusko Olerkiak IV* 1933, 109. or.

*Yakintza* 4, 1933, 252. or.

# AOLKU ON

*Aranatar Xantiri biotzez*

Ontan aiz eskuko, bestetan ez duk ik  
ez zertan aritu, ez zer ikusirik;  
itaz beste danai ez batxo jaramon,  
aizen orri, orde, ate-eizean egon.  
Lur-gizona laga, zerukoa jantzi  
ta atzenik, Jaunagan, arnasa egotzi.

Orixe duk, Xanti,  
egiteko soilla;  
besteak ez iri  
txanpon bat axola.

\* \* \*

*Itz-Tantoarena:* gau beltzean jayo,  
illuna erantzi lorea jazteko...

Ñir-ñirka zai egon mimikoan ttentte,  
ingurokoetan begirik tink bage.  
Ta artean iguzki zaiolako eldu,  
urrintsu, ninian, iltzeko lekutu...

Ara or ba, Xanti,  
biderik onena;  
gogoan iduki  
intz-tantoarena.

Iruñatik 1932

*Zeruko Argia* 172,  
1933ko apirila, 70. or.

# NOR ETA ZER NAIZEN?...

«Mai bat gaitu dezu  
nere aintzinean  
jazartzen zaizkidan  
etsaien aurrean.  
Burua gaimenez  
igortzi dídazu  
ta nere oritzia  
bai dala gozatu!»  
(22. erezia)

*Ene ama maiteari, Meza-Berri eguneko.*

Oi ama, oi ama nerea,  
nor eta zer naizen?...

Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!

Itzali zazu, ortzea, gar-gezitze ori.  
Gallurretik ondarrera su-gurdia irauli.  
Lur-zale zabilzatenok, begi biak itxi.  
Jaungoikoaz beste danak, nigan auspez yautsi...

*Oroen buru bai-nago,  
Jainkoa eskutan.  
Nere alari etzaio  
muga bat ere eman.*

*Ots, Andra- Mari berbera  
ni aiña bai ote?...  
Ta Ama gozo au ezpada,  
nor gero litzake?...*

Oi ama, oi ene ama nerea,  
nor eta zer naizen?...

Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!

En gogora dagokit zeru-goi osoa:  
ots dagiet-ta bertatik, ogi eta ardoa  
ez dira ogi ez ardo, baizik Jaungoikoa,  
itxuretan beste arren, dan bezelakoa.

*Au bai zentzuen gezurra  
egi uts-zurra ustez:  
me, zuriño ogi-apurra...  
baiña ogirik ez!*

*Ontzian ere ardoa.  
Begi biak: «ardo».  
Itz batzuk zaizkit naikoa,  
gezurtatzeko oro...*

Oi ama, oi ene ama nerea,  
zer eta nor naizen?...  
Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!...

Mirabe zintzoenik dut Goiko Jaun aundia:  
dei orduko, nere eskutan, du bere aulkia...  
Emen dago ogi eta ardo-antzez estalia,  
sukarrez, orde, mamian maitasun-zauria...

*Oi, albaleza gizonak  
nolapait gaur esan,  
Jainkoaren esku onak  
zenbat egin didan!...*

*Kanta bezaio, bai kanta  
biotz onak beti!  
Ekeratik orrobira  
aintza, Jauna, Zuri...!*



Oi ama, oi ene ama nerea,  
nor eta zer naizen?...

Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!...

Jaun onek egin zezaken, gogo ta ez beste,  
izar-morkak zitezela beste orrenbeste.  
Egin zitzaken lurreko auts-ondarrak, urre...  
Bere alaren aldean fitsik ere ez dire.

*Baiño, arren fauna, barka  
zure esku yoria  
nigan zearo ustua da,  
gain baitit neurria.*

*Bein, fauna, egin banauzu  
gizon loi apurrez,  
egiten ere zaitut zu  
ogi, ardo ta itzez.*

Oi ama, oi ene ama nerea,  
nor eta zer naizen?...

Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!...

Poztu zaitezke, bai ama, benetan zu poztu.  
Gaztaroko lelo aiek berriz otseratu.  
Jantzi gaur eztai-jantziak, erestuna sartu,  
lozez ornitu leioak, txakiak urrindu...

*Zure semea baida-ta,  
lur errege orde,  
laungoiko beraren fauna,  
zeruko mai-kide.*

*Igo dizut aldarera.  
Otoi dut zugatik.  
Zure nai utsa bete da...  
Il zaitezke pozik!*

Oi ama, oi ene ama nerea,  
nor eta zer naizen?...  
Oi ama, benetan, zure semea  
ez daki iñork zer den!...

Iruña 1931-II-14

*Zeruko Argia* 173,  
1933ko maiatza, 76. or.

# ITSU BAINENGOEN!...

Begiko zitzaizkidan guraso ta anaiak  
ken zizkidazun Jauna, banaka guziak...

Zauri ta gorde eskua!... Artean biotza  
eziñez neurrirazi taupadi zorrotza.

«Jauna, Jauna, niotsan zotiñez itoa,  
auxe lurtarrarentzat lan eziñezkoa!

Jauna, Jauna, zergatik onela min nauzu,  
zergatik zure eskuak ain latz ni ukitu?...

Agian Zuk, Jauna,  
—beldur dut esate—  
agian Zuk, Jauna,  
ez, nauzu ai! maite!...»

Zoro ta itsu beltza bai...! Ene! ezpainenkien  
maitasuna ari zala bereak egiten...

Ezpainekien oro zidazula kendu,  
biok genezan elkar bakarrik maitatu!...  
Jauna, barka idazu,  
itsu bainengoan!...

1930

*Zeruko Argia* 175,  
1933ko uztaila, 108.or.

# MOISESEN ESKER-ABESTIA

*(Exod. 15,1-19)*

*(Biurtz-antzera)*

Abestu dizaiogun, abestu Jaunari,  
orren bioztun gutaz goretsi danari.

Erdibitu zenduen itsas-beitasuna  
ta iruntsi zitun batez zaldi ta zalduna.

Jauna da nere indarra, Jauna da abestia,  
gaizkatu ninduen-da, beiturik etsaia.

Zu zera nere jabe, Zuri gorapena,  
gogoz Zuri damaitzut txalorik gorena.

Gurekin izan zihan esku aundikoa.  
Izen bat dagokizu: «Almenguztikoa».

Gudozte, gurdi eta Faraon berbera  
jaurtiki zinituen itxas barrunbera.

Gudari zangarrenak istillu gorrian  
barrendu ziran, beingoz, errai-gezalian.

Ondoratu ziraden, ari bat bezela.  
Lertu zenizkigun ba orru zeriela.

Ondatu zinituen; ziñez zera bikain!...  
Denak erre zinitun, galbizar bat bezain!

Orruka batu ziran asarre ugiñak,  
uren eraso beltzak adiskide egiñak,  
t'amildu zitzaizkien, gainka, ur-mendiak,  
irunsi naiez sumin Jaunaren etsaiak.

Zerragengu, beretzat gizonki ziola:  
«erauziko diet nik amorrus odola,

arrapatuko ditut, laster atzemango,  
burukatuz zartaka bertan ditut ilko.

Erdituko dizkiet beren ondakiñak»...!  
Baño... ai! gure etsaien ameskai ziztriñak!

Etzakiten, zitalak, Jaunaren indarra;  
etzuten, ez nabaitu azkonek dardara!

Askatu zinituen eraso nastuak.  
Gainkatu zitzaizkien ekaitz askatuak.

Sarrerazi zituzten gudariak bela,  
beruna ur-azpira sartzen dan bezela.

Nor ote da, nere Jaun, Zu bezin indartsu?  
Eres ta deuntasuna Zuri zor zaizkizu...

Gorrotatzen zaitunai beldurgari zera.  
Maite zaituztenentzat guztiz biotz-bera.

Jaso zendun eskua ta ito zitun lurrak;  
gezal biurtu ziran etsaien ezurrak.

Eraman ziñituen zureak zuzenik,  
gaizkaturik errukor etsaien mendetik.

Zuzendu ziñituen zure etxe donera,  
zerorrek gertutako mendi-magalera.

Jeiki ziran erriak, gudai otska zeuden...  
Baño orain ari dira gorriak ikusten!

Noralde gabe dabiltz Edongo jabeak,  
Moabek daralbiltzki estu naigabeak.

Kanaango gudariak igikor dagerzi;  
gure Jaunak zigorka urrun daramatzi...

Ereriko al zaie zure esku zorrotza;  
zimurtu zaiotezu beldurrez biotza.

Arri biurtu bitez zure etsai zitalak,  
auxe arrentzen dizu maitasun-egadak.

Sartu zaiezu erri au zure aterpean;  
gorde zazu zintzoki Jauregi donean.

Irauntasun osoan, eunkiak ondiño,  
azkendurik guziok, dirauzu betiro.

Zaldiz zerraiztegun-ta, ekaitz beazunak  
lertu zituen batez zaldi ta zaldunak.



Irauli zitzaizkien lerkoi ur-mendiak...  
Bañan...legor zerraizten zure gudariak!!

Agur Maria  
Iruña 1930-II-1

*Zeruko Argia* 177,  
1933ko iraila, 140.or.

# **AMA NEKETSUA - STABAT MATER**

**(Bedoñar Joakinen lenengo olerkia)**

Zutik gurutze-ondoan  
Alma samiña zegoan,  
ta Semea zintzilik...

Bere gogo gaxo, illuna,  
ezpatak urratu zuna,  
an zegoan larririk.

Ain estu ta atsekabea  
Seme bakardun Andrea,  
Amarik onen ura!

Oñazez ta naigabez,  
Seme kutunaren lanez,  
zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo  
Jesukristoren Ama aingo  
Seme gaxoz josita?

Beretarren erruekin  
zigorka zutela zekin  
Jesus bere Maitea.

Iñortxok ere ez laguntzen  
ta azken-arnasak ematen  
ikusi zun Semea.

Ea Ama, maite-iturria,  
zurekin samin bizia  
ar dezadan egizu!

Sutu Kristoren maitean...  
biotz au, ta Aren aurrean  
atsegiña nagizu.

Ama, nere biotzari  
Kristo-zauriak ezarri,  
arren, mami-mamian!

Seme orren neke lana  
erdiz bialdu nigana  
ain maite naun zorian!

Zurekin negar bizian  
naukazu ta aren zorian,  
ilko naizeneraño!

Birjiñetan emeduna,  
ez neri izan ain aztuna,  
neri negar-eragin!

Kristoren nekea uste, eriotz  
zauriak artzeko, biotz  
aul au bizkorra egin!

Zauritu zure zauriez,  
zoratu nadin odolez  
gurutz-iturripean!

Su-garrak erre ez nazaten  
nere alde jarri, arren  
Ama, azken egunean.

*Zeruko Argia* 183,  
1934ko martxoa, 238. or.

# TXINPARTA-ERESIA

Noletan zenezaken, enborra, zuk kanta,  
begi-biotzarentzat ziñez ulerkaitz da.

Noiztik, bada, legoke norbait kantarako,  
miñaren-min izarrak ikuski baitago?

Eresirik bai al du txoriak beiñola,  
miru beltzaren iges, odol dariola?

Yolasean al dabil erbia larrean,  
eiztariak pum!... jo-ta, erdi-illik uztean?

Dantzarako al dago nonbait erleñoa,  
ur-txirripak eldu-ta narraz badijoa?

On litzaio norbaiti kantari aritza,  
tximistaren dardaraz lurrera balitza?

Ondo legoke, bada, gariaren parra,  
leiaritsu baletor aize-egotan garra?

Izpi-muñik bai al du gauan illargiak,  
narda-egan badabiltz bitarte odeiak?...

Benetan bai zerala, enborra, ulerkaitza,  
arkaitz bizian dan lez loreti zugaitza...

Ziñetan zabilz nere barren-nasterako,  
izotz-txuntxurra eran eguzkira malko.

Zergatik zu, ordea, ez berdin ziñaken,  
adimen muxar onek ez dit arrapatzen:

neregandik datorkit ortara egiña,  
eresiaren orde sortzen zait zotiña.

Gogo-naste ortara ez neike ni jarri,  
malkorik ez oi da-ta eztaian ikusi.

Aizkidea bazaitut, jolas-kantak artu  
ta abesti-kunkunera zeurekin naukazu.

Min-illetak baztertuz, alaiari eman,  
zure kantaz nik ere gaur kanta dezadan.

Yolasean bazakust, ez bezat or entzun  
jario-gordañaren zuzmuru bat illun.

Betozkit aringarri mintzaira biguñak,  
uxatzera betozkit odei beltz, aztunak...

Kanta, enborra, kanta... txinpartak jaurtiki,  
zure mingain gorritzak kurriz erabilli.

Kantaria nagotzu aspaldi zure on,  
min gorriaren miñez naiz lertuki egon;

kantaria nagotzu kanta pozgarria,  
biotzean dezazun ber-piztu argia.

Begira nere garrak zein gora dagiten:  
zeinbat malkotsuago ainbat ditu igotzen.

Naigabeak dakarkit kantarako indarra,  
naigabea da nere eresgai-aparras.

*Zeruko Argia* 185,  
1934ko maiatza, zk. 273. or.

# BANOAKIZU...!

Txirristaka darorzkit  
oraindik malkoak,  
ene amak muxuka  
ateratakoak.

Ene amaren azken-muxua!...  
ene amaren aiotsak!...  
Malko garratzen gezaltasunaz  
urtu zaizkigu biotzak.

Korapildurik daukat mingaiña...  
barrenai odol dario...  
Miñaren miñez utzik badere,  
urrundu bear natzaio.

Zorionaren zori samiña!  
Zugandik, ama, urrundu?  
Alde-bearrak askatu ordez,  
biotz-kateak estutu!



Banoakizu!... bazakust ere  
naigabe miñez urtutzen...  
Maite banauzu, ez izan urri  
zure baimena ematen.

Atozte, arren! erle txukunak:  
igortzi nere kopeta!...  
Berriren berriz odol-loreak  
ezti-jarioz daude-ta.

Miztu arretaz biotz-lorea,  
ozpiña bezin garratza;  
mimikotxoan gorderik, leundu  
amaren bizitz-arratsa.

Atoz sasitik, euskal-xoxoa:  
urratu *borboil* paparra;  
*txiruliruka* eres biurtu  
ene amaren negarra!

Ar zazu gaurtik zure amatzat...  
Leioan egin kabia,  
ta sasian lez, kabi-ertzetik,  
poztu dantzari bizia!

Zaindu baratza nere ordean;  
gorde pipirriz etxea...  
ta azken-aldian, ene txoria!,  
laztandu ama nerea!

Banoakizu..., banoakizu,  
biotz-mamiko kutuna!  
Yainkoak nai. du! Ordaingarritzat  
goian daskeingu zoruna.

Alaitu zaitetz alik geienez!  
Yantzi gaur eztai-yantziak...  
Estali lorez ate-buruak;  
zabaldu kutxan usaiak!

Alaitu zaitetz!... zure semea  
zeru-lurreko errege...  
Yainko berberak igortzi nau-ta  
bakaldun, artzai ta jabe.

Nolaz nik gero gaitzetsi, ama,  
Yaunak dalmaidan yabetza?  
Nolaz zimeltzen utzi dezaket  
Yesus Onaren ametsa?

Aundi natzaio, aundi dagert-ta;  
urrunduko naiz berela,  
Yaunaren naiak guztiz lotu nau,  
untzak aritza bezela.

Egunik-egun, Yesus, bazabiltz  
ixil-adikor deiezka,  
bingoan beingoz gertu naukazu  
Zurekin ega naiezka.

Badakit ziñez gogorra dala  
kentzea seme bakarra;  
badakit iñoiz ez dala asetzen  
ama bateren negarra.

Baña gaxoa!, ezin ukatu  
Yesusi gure baimena;  
maite badegu, alden du bear  
zorrotza badere eztena.

Yainkoak nai du! Yainkoak nai du!  
eman zaiogun laguntza;  
aundi agertu, aundi zera-ta...  
begiak jaso goruntza!...

Begira zertaz Gurutz batean  
iltzen utzi zan Yaun Ona.  
Begira nolaz ibilli oi zan  
erostearren gizona.

Ta azpiratuko zenuke, ama,  
Yesusen odol saindua?  
Artzai Onaren deia entzunik,  
negoke zuri lotua?

Aundi natzaio, aundi dagert-ta.  
Urrunduko naiz berela;  
Yaunaren naiak elkartu nau-ta  
ntzak aritza bezela.

Banoakizu..., Yainkoak nai du!  
Gurutzeakin baturik.  
Bera da nere lagun ezta;  
nun gero ura lakorik?

Gurutz maitea: zu zera gaurtik  
nere begien argia;  
zu nere ama, lagun bakarra,  
alaitasun-iturria.

Indarra zera ta indartsua naiz,  
zurekin naiz ni garaille...  
Auzpeztu bitez etsai gaiztoak  
ta auzpeztuz, agur zaitzate!

Orru ta marru naskaldu bitez  
lur eta itxaso zakarra!  
Zurekin banaiz, ez det beldurrik...  
nekin daramat Indarra

Nekin daramat indarren-Buru,  
nekin daramat bizia;  
nekin daramat arantz tartean  
margotuko dan azia.

Ez det beldurrik!... Gurutz doneaz  
ziurki naiz ni garaille...  
Maitasun bidez aitortu ezik,  
zigorrez agur zaitzate!

Zure zaurien dirdir biziaz  
uxatuko det otsoa;  
ta auzpeztuko da zure aurrean  
apalki ludi osoa.

Batuko dizut giz-artaldea;  
arkituko det bildotsa;  
mendi gaiñetik zabalduko det  
maitasunaren abotsa.

Tontorrik zear, basorik barna  
urratuko naiz oiuka;  
ta arditxoren bat iges badabil,  
biurtuko det muxuka.

Moztuko dizut alor-arantzak;  
zusterkatuko sasiak...  
Urte bat buru erneko zaitzu  
«Berri Onaren aziak».

Sendotu bitza euzki oraillak;  
urtatu goiak naikoa;  
ta azken zorian makurtuko da  
arnaripean soroa.

Bekit biziro zure besoak;  
indazu arren Yaun Ona:  
zure laguntzak indartzen banau,  
eziko det nik gizona.

Agur azkenik, ama kutuna;  
agur... begira goruntza.  
Zure semeak uzten bazaitu,  
Yaunak dakartzu laguntza.

Agur, Euskal-Erria,  
zugandik banoa:  
maite bazaitut ere,  
maitago Yainkoa.

\* \* \*

Iruntsi naiez orruz zabiltzan  
itxaso gezal, nastua:  
estutu zure ugin-orratzak,  
askatu gentza-gorua.

Urreztu zure bekaitz-adarra;  
otzandu bizkar-ezurra,  
lotu asarre dunboslaria,  
neurtu jokaldi biurra.

Zure mototsa zorrotz orraztuz,  
ara antxen narras ontzia!  
ta ardatz-ertzean moko xabalik  
pakezko uxu txuria.

Noletan gero galdu ontzia  
ur-mendi-saillak amorruz,  
odei-tartean irripar gozoz  
Izar bikaiña badakus?

Ta ixilik doa egatu naiez  
euskaldun uxu txuria;  
ta aurrera beti, beti garaitsu  
uxotxoaren kabia.

Ez du beldurrik, indartsu da-ta;  
barruz darama itxaso;  
maitasun-galdak zabal-erazten  
dio sarriro moko.

Eskutatu zan urrun-aldean  
intxaurtxo bat lez igari:  
ta Izar urdiña Euskal-Errian  
usotxoaren zai beti.



Iruña 1931-9-6

*Yakintza* 16,  
1935eko uztail-abuztua, 266. or.

# AITORMENDIA ERESTI

*«Elduayendar T. Abari  
bere apaizgintzako zillar eztaietan»*

AGUR! — Loramendi A.

Noren «Irudi»  
ez galde neri...

Gizon-muxarrak ez dazau.

Sua ta garra  
kopeta-adarra.

Sua ta garra goiztik-gau.

Ezti-jarioz gandorrak dagerz.

Aitormendia eresti.

«Aizpa zurien» lizzarditxo  
eztai-jaietan dirudi.

Noren gorespen  
ez dut somatzen...

Yostakin garrak goraka...

Ta iturrik-itur,  
uso-antzukur,

«Maitagar-aizpak» gar-ondora.

Ipar mearen ega geldiak  
eres kixkurra darabil...

Ta «lrudi»-goira, kulun zabunez  
laño gorrixtak darortz bil.

Noren «lrudi»  
ez galde neri...

Ibaika sua dario.

Bekokipea  
suzko labea...

bizitza suak damaio.

Atxon darien iñar-odeiak  
«lrudi»-gaña dastalte...

Ta itur-aldetik «Aizpa zuriak»  
elur-zugaitza dakarte...

Noren gorespen  
ez dut somatzen...

Gizon-muxarrak ez dazau.

Txingar urtua  
bere burua...

Oñazkar-bide goiz ta gau.

Oinpetzat odei-matazak dauzka.

Zillar-txuntxurra bakaulki...

Urritz-abarra eskuan tente.

Burestun orde ez eguzki...

Noren «Irudi»  
ez galde neri...

Gizon-muxarrak ez dazau...

Sua ta garra  
kopeta-adarra...

Geroz zutago goiztik gau...

Aurkezten zaio aizpa zuria  
elur-zugaitza opari...

Ta Irudi goira txukunki jasoz  
eskeintzen dio kantari...

Noren gorespen  
ez dut somatzen...

Garren mototsa goraka.

Pozaren pozez,

Irudi aurrez,

Maitagar-aizpak egaka...

Sailka dagertzi... makurtzen dira ...

Txutitu gero batera...

Ta askatuz zillar-ereserkiak

zai daude orain jotzera.

Nolako jotze

ez dezaioke

gizon-muxarrak atzeman.

Ekaitz-oroimen

aldiz zekarren;

elur-maluta bestetan.

Ta arkaitz leiarrak intziraz artuz,

soñu berrira diragi

Ta Aizpa zuriak darantzuiote

eres berriaz kantari:

«Gora bizaitza... euzki anaiak...

Cora bizaitzate... izarrak...

Cora bizaitzate... ur txauak ere.

Cora bizaitza... su-garrak.»

Noren opari

kantari diran

Gizon-muxarrak ez dazau.

Txingar urtua

bere burua,

geroz zutago goiztik-gau.

Entzuki dago eguzki dardar.

Urre boladaz darantzu...

Ta iñoiztik iñoiz arrotu bada

gaurkoan ziñez da arrotu...

Amaitu dute

ixillaz naste...

Lurtarrak zerbait badakus:

argi-lorezko

irripar-gozo

Irudi-goiak darakus.

Ta Aizpa zarrenak lizar orriez  
buresten duan bitarte,  
berriren Aizpak «Babiloniko»...  
eresiari darraite:

«T'oroitu bezin laister zutaz, gure Sion,  
negarrari guziok ematen genion»...

Negar dagite sarats illunak...  
Errekak datoz urduri...

Ta arkaitz-gezalak, zugaitz-zaiñak lez,  
ezti-malkoa dixuri.

Sua ta garra,  
txingar-aparra  
«Irudiari» dario.

Suzko labea  
bekokipea...  
Ezurrak gartu zaizkio.

Azkendu dira gorespen-jaiak...  
Badoaz «Aizpak» lerroka...  
«Babilon»-eres-oiartzunera  
lizarrak zotin-malkoka...

*(Begira.)*

Izkutu ziran... Illuna geldi...

Austen da berriz egona...

Ta itur-aldean dantzut alaiki:

«Gaurko Gauaren Gau Ona»...

Izkutu ziran... Ixillak (txint?) gain...

Kulunka daror egona

ta itur aldean berriren berriz

dantzut «Gauaren Gau Ona».

«Tralara, la, la»...

Auxe, bai, dala

gaurko «Gauaren Gau Ona»...

Dantzatu gaitetz

Irudi-aurrez,

jainkotu da-ta gizona...

Il da entzuna ta asten da ixilla

darantzuiola zuzmurruz

ta ipar-orratza egati dabil

afal-usaiaz edatuz.



Noren goraltzan  
aparia dan

gizon muxarrak bai digar.

Jaso begia:

Aitormendia

«Irudi»-pean su ta gar...

O Irudi garra! eresti-zale  
nagokitzu bai zure maitale.  
Zure txingarren suak banargi  
(deritxat?) izan garren janari.

Noren gorespen  
jaia legiten

gizon-muxarrak ez digar.

Illuna bada,  
erraiñukada

geroz geiago su ta gar.

Geroz geiago sua ta garra  
uxatuz illun egada.  
Garren dirdira, Euskal-Erria,  
Euskal-Erria esna da.

Urrun doazi  
lerro ta sailki

Aizpak abestuz erdika.

Ta iturrik-itur,  
uso-antzikur,  
zabaltzen dira yauzika.